

## **EAEko Hezkuntza Saileko lan legepeko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen berria lortu dugu**

**Hamaika borroka eta 20 urte luzeren ondoren, heziketa bereziko hezitzaileen aitortzarako eta lan baldintzak hobetzeko aurrerapausoak dituen hitzarmena lortu du LABek.**

Gaur, abenduak 19, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta gehiengo sindikala adostasun batera iritsi gara. Ondorioz, indarrean zegoen hitzarmena gainditu eta hemendik aurrera hitzarmen berria izango dugu. 2023ko ekainaren 1ean, Hezkuntza Legearen testuinguruan, egindako bi greba egunak eta LAB eta Hezkuntza Sailaren artean akordio laborala sinatu izana ezinbestekoak izan dira hitzarmena sinatzeko.

2004ean sinatutako hitzarmenean Hezkuntza Laguntzako Espezialistek hezitzaile kategoriaren aitortza lortu genuen. Borroka luzearen ondorioz lortutako aitortza izan zen hura, eta Euskal Herriko beste lurraldeentzat erreferentzia izan gara. Nafarroan, gure urratsei jarraikita, berriki lortu dugu hezitzaile kategoriaren aitortza.

Oraingo honetan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan beste aurrera urrats garrantzitsu bat egin dugu. Alde batetik, Hezkuntza Laguntzako Espezialisten, Zeinu Hizkuntzako Interpreteen eta Transkribatzaileen soldatak Haurreskolak Partzuergo publikoko hezitzaileenekin parekatuko dira. Bestalde, lan zama arindu eta ikastetxeko erabakiguneetan parte hartzea ahalbidetuko duen ordutegia lortu dugu; arreta zuzena 25 orduetara jaitsiko da, eta ikastetxean koordinatzeko eta materiala prestatzeko 5 ordu izango ditugu astean. Gainera, funtzioetan lan hezitzailearen aitortza egingo da eta, lankidetzan azpimarra jarritz, ikastetxeko beste profesionalekiko mendekotasun hizkuntza desagertzen da.

Baina lorpenak ez dira hor bukatzen. Besteak beste, kategoria guztietan behin-behinekotasun tasa %5etik beherakoa izango da eta EPEak 3 urtetik behin egingo dira, ereduak negoziatuz; lizentzia eta baimenetan hobekuntzak daude, eta zaintza eta soldatapeko lana uztartzeko aukerak zabaltzen dira; ordezkoen prestutasunagatiko eta mugikortasunagatiko konpentsazioa eta puntuazioa lortu dugu, zerrendetan izena emateko euskarazko C1 hizkuntza eskakizuna eskatuko da; ordezkoen araudi osoa negoziatzeko egutegia adostu dugu; eta baliabideak esleitzeko irizpideak negoziatzeko atea ireki zaigu, zeinak ikasleen ratioak eta intentsitateak ikasturtea bukatu aurretik negoziatzeko aukera emango baituen.

Ez dugu ahaztu behar hona iritsi ahal izateko 2018an, zortzi greba egunen ostean, 2004ko hitzarmena hobetzen zuen akordioa sinatzea lortu genuela, eta hori ezinbestekoa izan dela. Akordio hark asteko lan orduak mugatu zituen, Fisioterapeuten, Okupazio Terapeuten eta Gizarte Langileen soldatak irakasleekin parekatu zituen eta Zeinu Hizkuntzako Interpreteak gure kolektiboan integratu zituen, besteak beste.

Kolektibo honetako langileen ordezkarien % 63k baino gehiagok babestu du lan hitzarmen berri hau. Gaur lortutakoak orube bat ezartzen du Heziketa Bereziko hezitzaileen lanaren aitortzan aurrera urrats berriak egiteko. LABek borrokan jarraituko du hezkuntzako kolektibo guztietan eta, bereziki, indarra egingo du administrazioak bazterrean dituen kolektibo feminizatu eta gutxietsiek merezi duten aitortza lortzen.

**Euskal Herrian, 2024ko abenduaren 19an**